

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroengana transmititzeko hainbat kanal ditugu, hasteko, kirola sare sozialetan egiten duten influers-ekin kontaktuan jarriko gara eta zapatila pare batzuk oparituko dizkiegu dohain beraiek instagramen argazkiak edo bideoak igotzearen truke, jendea beraien funtzionamendua praktikan ikusten badu erosteko aukera gehiago dagoelako.

Bestalde, telebistako kanal desberdinetan iragarkiak jarriko ditugu, adibidez, EITB-n jende asko ikusten duenez gure bezero kantitatea handituko duelako, iragarkian zapatila eta suela modelo desberdin guztiak erakutsiko ditugu. Baita, Diario Vasco-n orrialde bat jarriko dugu gure zapatilen funtzioa explikatuz eta argazki batzuk txertatuz.

Salmenta kanalari dagokionez, amazon-ekin kontratu bat sinatu dugu gure zapatilak saltzeko bestalde denda fisikoetan salduko ditugu ere, gure saltzaile nagusia JD sports izango da baina beste hainbat dendarekin kontratuak sinatuko ditugu ere, adibidez, Forum Sport, Dooers...

Horrez gain, Gaztea irrati kanalarekin hizketan gabilta gure produktuaren iragarki batzuk egiteko. Azkenik, El Corte Inglés-rekin kontratu baten bila gabilta, oso saltzaile ona iruditzen zaigulako Espainiako ia hiri guztietan dendak dituelako.

Zapatilen entrega eta salmenta egin ondoren, gure bezeroei txarteltxo bat emango diegu bertan QR bat aurkituko dute eta han zapatilak probatu ondoren beraien esperientzia komentatu dezakete, produktuaren inguruan zalantzak dituztenei argitzeko.